

## IRABAZI ITURRIAK

Lehenik eta behin, esan beharra dugu, gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko hainbat diru-sarrerara desberdinetatik baliatuko garela. Izan ere, udalatxean diru laguntzak eskatuko dizkiogu, herri ikastetxearekin egindako itunarekin kontaktuan jarriko gara, kreditu bat eskatuko dugu gure proiektua aurrera atera ahal izateko. Hasiera batetik gure aurrezkiak jarriko ditugu diru apur bat aurreratua izateko, zozketa desberdinak egingo ditugu eta crowdfundinga erabiliko dugu. Crowdfundinga, dirua eskuratzeko modu bat da, hain zuzen ere, “lanzanos” izeneko webgunean proiektuaren inguruko bideo bat edo informazio bat jarri beharra dago eta ideia hori aurrera ateratzea nahi duen jendeak diru-laguntza desberdinak egiteko aukera du. Eskuratu nahi den diru kopurua lortuz gero, diru hori beregantzen duzu eta zure proiekturako baliagarria izango da.

Aurrekoa kontuan izanda eta gure diru-sarrerak nondik lortuko ditugun kontuan izanik “Santander bankurekin” harremanetan jarri gara eta beraiekin bat egitea erabaki dugu. Aukera nahiko zabalak eskaintzen ditu izan ere, gure enpresa beste leku batzuetara ireki nahi baldin badugu bankuaren laguntza izango dugu hasieratik. Hori gutxi izango balitz, gure aukerak zabaltzen ditu.

Gure zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hasieratik prezio finkoa izango dugu. Izan ere ezin gara gure bezeroekin jolasean ibili. Hori dela eta prezio eta egun desberdinak aukera jarriko ditugu bezeroak gustuko prezioa eta eguna aukeratu ahal izateko.

Esan beharra dago, prezioak hilerokoak izango direla. Hau da, hilean zenbat saio egin nahi dituzten aukeran izango dute eta familiako kideen arabera eta egun kopuruaren arabera prezioa aldakorra izango da. Hurrengo taulan prezioak finkaturik utziko ditugu eta bezeroei aurkeztuko zaien taula izango da.

Saio kopurua	Pertsona kopuruaren arabera prezioak				
	heldu bat + hour bat	Heldu bat + bi hour	Bi heldu + hour bat	Bi heldu + bi hour	Bi heldu + hiru hour
Hilean 2 saio	36,00 €	45,00 €	54,00 €	72,00 €	81,00 €
Hilean 4 saio	65,00 €	81,25 €	97,50 €	130,00 €	146,25 €
Hilean 6 saio	90,00 €	112,50 €	135,00 €	180,00 €	202,50 €



Taulan ikus daitekeenez, prezioak familiako kideen arabera eta egun kopuruaren arabera aldatzen dira.

Aurretik esandakoa kontuan izanda, esan beharra dago prezioak aldatu daitezkeela. Izan ere, udaletxean erroldatua baldin bazaude %5-eko deskontua izango duzu bukaerako prezioan. Deskontu hau herrian bertan erroldaturik dagoen edonorentzat balioko du. Hori gutxi izango balitz, familia ugaria baldin baduzu %5eko deskontua egingo da baita ere. Deskontu hau aurreko deskontuaz aparte izango da. Beraz, familia ugaria izan ezker %10 eko deskontua izango duzu bukaerako prezioan. Garrantzizua da aipatzea, gure prezioak ez dira aldatuko eta bezeroei hasiera batetik eskainitakoak izango dira urte osoan zehar.

Aurreko guztia kontuan izanda, garrantzitsua da argi ustea saioak nahi dituzten moduan kudeatu ahalko dituztela. Hau da, hilean 6 saio hartzen baldin badute eta ezin baldin badituzte hilean 6 saio horiek egin aukera izango dute saio horiek beste hilabete batzuetan berrezkuratu ahal izateko, inolako dirurik galdu gabe edo diru estrarik ordaindu gabe.

Aurrekoa kontuan izanda, gure zerbitzuaren lokala alokatu egingo dugu. Hainbat aukera bilatzen ibili garelako eta errentagarriena iruditu zaigulako.

Azkenik, gure zerbitzua ezagutzera emateko sare sozialak erabiliko ditugu (instagrama, facebook,...), hori gutxi izango balitz, web orri bat sortuko dugu gure zerbitzuari buruzko informazioa, ordutegiak, prezioak,... bezeroak ikus dezaketen. Horrekin bat eginez, web orrialdetik gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute eta nahi izan ez gero ekintzetara joan nahi dituzten egunak aukeratzeko aukera izango dute.